

## Arabar Errioxako 120 ikaslek landu dute bertsolaritza eskola ordutan

Uxue Diaz de Cerio, Arabako Bertsozale Elkarteko irakaslea, klasea ematera etorri da Arabar Errioxako 4 ikastetxetara.

Lehen Hezkuntzako 5. eta 6. mailako ikasleak izan dira, "Gu ere bertsotan" programan parte hartu dutenak. Oiongo, Lantziegoko, Lapueblako eta Bastidakako ikastetxeetako gaztetxoak aritu dira bertsotan 2013-2014 ikasturtean zehar.

Haurrek primeran pasa dute bertsoak egin eta entzunez, hitzekin eta euskararekin jolastuz eta bide batez, hainbat bertso emanaldi burutu dituzte klasean prestatutako bertsoekin; Gabonetako jaialdietan, Errioxako irratian... GU ERE BERTSOLARI programa "Bertsolaritzaren curriculum" lanean oinarritzen da eta lau eremu lantzen ditu: MUSIKA, KULTURA, HIZKUNTZA eta TREBETASUN PERTSONAL ETA SOZIALAK.

EDERKI ARI ZARETE ARABAR ERRIOXARRAK!!

### Arabar Errioxako bertso-eskola



**ANIMA ZAITEZ BERTSO ESKOLARA!!  
HAUR ETA GAZTEEN TALDEAK SORTU  
NAHI DITUGU!!**



# Euskal Herriko Bertsolari Txapelketa Nagusia Oionen



Aurtengo ikasturtean, Euskal Herriko Bertsolari Txapelketa Nagusiak, urriaren 26an, Oion izan du geltoki, azken Kanporaketa erabakigarrian.

Arabar Errioxako paisai ederrean egun pasa egin eta kaleetako zoko denak animatzeko parada izan zuten bertsozale askok. Goizean goizetik heldu ziren lehen bisitariak. Bertako upategietan bisita egin eta ederto bazkaldutakoan heldu zen denek espero zuten momentua.

700 bat lagun elkartu ziren Oiongo Arroio pilotalekuan Eneritz Zabaleta, Etxahun Lekue, Iratxe Ibarra, Maddi Sarasua, Manex Agirre eta Miren Amurizaren hitz jolasak eta jolasen hitzak entzun eta bizitzten.



Txapelketa girotzeko, aurreko asteetan hainbat bertso poteo, girotze saio burutu ziren. Arabar Errioxako, Arabako naiz Euskal Herriko bertsolari gonbidatuekin: Arrate Illaro, Sebastian Lizaso, Orlando Arreitunaindia, Unai Bengoetxea...

Ekintza hauen artean goraiatzekoa izan zen Ruben Santxezek IKA euskaltegiarekin elkarlanean egindako saio didaktakoak, Txapelketa nagusia eta bertso-gintza eskaini zien bertaratutakoei.

ESKERRIK ASKO LAGUNOK!!



Eneritz Zabaleta

Etxahun Lekue

Iratxe Ibarra

Maddi Sarasua

Manex Agirre

Miren Amuriza

KANPORAKETA  
OION

# Bertxoko Sariketa



Afalosteko bertso giro goxoan murgildua burutu zen Bertxokoko kanporaketa. Eskuernagako Sortera tabernan elkartu ziren 20 bat lagun bikote arteko lehia berezi honetaz disfrutatzen. Arabar Errioxa versus Arabako Lautada (kasu hontan Iñaki Viñasprek ordezkatu zuen Lautadako Oihane Perea). Arabar Errioxa ordezkatzeko Orlando Arretunandia eta Iker Olabarrieta izan ziren eta Lautada berriz, Iker Pastor eta aurretik aipaturiko Iñaki Viñasprek.

Lurrei omen eginez, mahastietan barna ibili ziren bertso-lariak, batzuk tradizionaletik eta beste batzuk modernotasunetik.

Azkenean final handiak Lautada-Gasteizek osatutako bikoteak, Jon Ruiz de Pinedok eta Ruben Santxezek, irabazi zuen txapelik gabeko Txapelketa hau.

BEJONDEIELA!

# Arabako bertso kuadrilla artekoA 2014

Kuadrillartekoa berritu eta berritzaile iritsi zen aurtengoan gurera. Hasteko, lehiarik gabe egin dugu, elkar-tertea badelako nahikoa aitzakia. Bestetik, norekin, non, zenbat saio... taldeen esku zegoelako.

Parte hartze handia izan du eta dugu, hauen artean Arabar Errioxako Txandrio Taldea, bertsoan Orlando Arreitunandia, Iker Olabarrieta eta Unai Bengoetxea, hori bai Txandrio Bertso Eskola osatzen duten lan talde osoak babestuta.



Bi bazkalosteko saiotan aritu zen, bat Oiongo Azkenak Elkartearen eta bigarrena Gasteizko Aizkorak tabernan. Oionen Zalduondokoekin elkartu ziren kantatzera eta Gasteizen Aizkorak Zorroztukoekin.

Kuadrillartekoa Aren azken festa egunean giro ederrean aritu ziren bertaratuak, poteoan, dantzari, bertsoan.... Agurain bertsoz, koadrila arteko giroz, musikaz, dantzaz... bete genuen. Eta guzti hori lehiatu gabe.

Aho zapore izugarri ona utzi digu aurtengoak, *ea laster datorren hurrengoak!*

# Araba Errioxa Euskaraz



Hainbat izan dira aurtengoan euskara goraitzeko aitzakiapean antolatutako saioak.

Euskararen Nazioarteko eguna ospatzeko, Oionen kantu eta bertso afaria antolatu zen, Felipe Zelaieta eta Asier Otamendi bertso-larien laguntzarekin.



Hilabeteak aurrera joan ahala, aurtien Lapueblan ospatuko den Araba Euskaraz girotzeko ere saio batzuk antolatu dira. Honela, Iñaki Viñaspre, Amets Arzallus, Maialen Lujanbio, Igor Elortza, Orlando Arreitunandia, Aitor Sarriegi, Unai Iturriaga edota Andoni Egañarn bisita izan da eskualdean. Araba euskaraz egunean bertan ere izango da bertsoez gozatzeko aukera.

## Saio andana Arabar Errioxan!

- 2013-10-05 Argantzun, Saioa herrigunean
- 2013-10-11 Oion, Txapelketa Nagusiko girotze saioa
- 2013-10-17 Oion, Txapelketa Nagusiko saio didaktikoa
- 2013-10-26 Oion, Txapelketa Nagusiko kanporaketa
- 2013-11-02 Eskuernaga, Bertxoko kanporaketa
- 2013-11-29 Oion, Euskararen eguneko bertso afaria
- 2014-02-15 Oion, Arabako Bertso Kuadrilla ArtekoA
- 2014-05-03 Lapuebla de Labarka, Araba Euskaraz girotze
- 2014-05-10 Lapuebla de Labarka, Assa Ikastolan saioa
- 2014-06-15 Lapuebla de Labarka, Araba Euskaraz

**ARABAKO BERTSOZALE ELKARTEA**  
**AMAIA ZENTROA**  
 Benito Perez Galdós z/g 01002  
 tel: 945 010505/ e-posta:  
 araba@bertsozale.com

[www.bertsozale.com/araba](http://www.bertsozale.com/araba)  
[www.bertsoa.com](http://www.bertsoa.com)